

Ezkon aurreko agurrak antolatzen

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Sekuentzia honetan, ezkon aurreko agurrei buruz hitz egingo dugu. Horretarako, ariketa hauek egiteko aukera izango duzu:

- Binaka erantzun galderari.
- Ikusi bideoa eta erabaki esaldiak zuzenak ala okerrak diren.
- Irakurri testua eta osatu hizki-zopa.
- Antolatu ezkon aurreko agur-festa.



1- Ezer baino lehen girotu egin behar da

Ariketa-sorta honetan, ezkon aurreko agurrei buruz hitz egingo dugu. Ezertan hasi aurretik, binaka erantzun galderari:



Ezagutzen duzun edo parte hartu duzun ezkon aurreko agurren bat kontatu diezazue lagunari. Eta, ez baduzu zuzenean parte hartu, kalean edo ikusi duzun talderen bat aipatu (mozorroturik zeuden, neskak/ mutilak ziren...)

2- Profesionalen esku utzi

Ikusi Boat Trip San Sebastian enpresako kudeatzaileari egindako elkarrizketa eta erabaki esaldi hauek zuzenak ala okerrak diren:

	ZUZENA	OKERRA
Itsasontzian egin daitezkeen ekintzak sarean begiratu, eta horien artean aukeratu behar izaten dute antolatzaileek.		
Gehienetan gizonezkoen eta emakumezkoen taldeak izaten dira, guztiak nahastuta.		
Guztiei gehienbat abestea eta dantzatzea gustatzen zaie.		
Itsasontzian abesti asko dituzte eta horiek jartzen dituzte; jendearen arabera aukeratzen dute zein musika estilo jarri.		
Eguraldiak garrantzia handia du, eta horren arabera gauza bat edo bestea egin erabakitzen dute.		
Leku askotako jendea joaten da: txinatarrak, nafarrak, estatubatuarrak...		
Gehiena harritu duen taldea leku askotatik eta urrutitik etorritako pertsonak osatutakoa izan da.		

3- Aspaldiko ohitura

Orain 'Ezkon aurreko agurrak, aspaldiko ohitura' testua irakurriko duzu. Erreparatu gaiarekin lotura berezia duten hitzei:

Ezkon aurreko agurrak, aspaldiko ohitura

Gure alboan festa-giroan dabilen kuadrilla bat ikusi eta haien artean bat mozorrotuta badago, askori ideia bera datorkigu burura: desberdin jantzitakoa laster ezkonduko dela. Izan ere, ezkon aurreko agurrak egitea gure artean zabaldua dagoen ohitura da. Lagunek eta senitartekoek antolatzen diote festa, eta egun bakarreko, biko edo hiruko planak izaten dira, helburu jakin batekin: ongi pasatzea.

Ohitura horrek gure garaikoa edo modernoa badirudi ere, historiari erreparatzen badiogu antzinako gizarteetan ere antzerakoak bazirela ikusiko dugu.

Jatorria Mesopotamian

Antzinako Mesopotamian sortu omen ziren ezkon aurreko agurrak. Garai hartan, bikoteen ezkontzen aurretik, ugalkortasunaren jainkosa gurtzeko festa handi bat antolatzen zuten udaberrian. 12 eguneko iraupena zuen jaia emakumeentzat bakarrik izaten zen, eta urte horretan ezkonduko ziren emaztegaiek hartzen zuten parte, baita haien familiakoek edo haurdun geratzeko adinean zeudenek ere.



Espartan, berriz, gizonezkoentzat soilik antolatzen omen ziren Kristo aurretik V. mendean. Hango soldaduek emakume bat kontratatzen zuten senargaia seduzitzeko, eta, kasu horretan, helburua senargaia fidela izango zela egiaztatzea zen.

Hala ere, Erdi Aroko Alemanian bada agur-festa horien aitzindari den istorio bat: nekazari behartsu bat neska burges batekin maitemindu omen zen. Ezkutuan maite zuten elkar, baserritarrak ezin baitzuen burgesaren aitari ordaindu beharreko dotea pagatu. Bikotearen lagunek, beren arteko maitasuna ikusirik, festa handi bat antolatu zieten esaten dute. Jai hartan, bizimodu berri bat hasteko behar zutena eman zieten ezkongabeei: etxeko altzariak, doterako dirua... Ordutik aurrera, batez ere emakumezkoentzat antolatzen ziren despedidak, eta etorkizunean beharko zituzten gauzak oparitzen zizkieten.



Engraxi Zugasti duela 50 urte baino gehiago ezkondu zen.

Ospakizuna bai baina mozorrorik ez

Erdi Aroko istorio horrek badu garai bateko ezkontzarako arreoaren nolabaiteko antza. Hala kontatu digu Engraxi Zugastik (Anoeta, 1938). Andoingo Nicanor Mendizabalekin ezkondu zen Zugasti Amasako elizan 1961. urtean. Garai hartan, neskame zen Tolosako familia batean eta handik bere nagusiek eraman zuten elizara zuzenean: “Ez ginen asko izan, nire senar zenaren ama hil berria zen eta bere osaba-izebak ez ziren etorri”. Engraxik berak gau-mahaiak, platerak, ohea eta beste hainbat gauzaz osatutako arrea eraman zuen senarrarekin biziko zen etxera. “Neskame-soldatarekin aurreztutako diruarekin erosi nituen, izan ere, Nicanor bizi zen baserrira ezkondu nintzen... Nire amandreak ere maindireak oparitu zizkigun, eta senideek zilarrezko mahai-tresnak eta alfonbra”. Etxe berri batera joaten zirenean, arrea senar-emazteen eta gonbidatuen artean osatzen zutela kontatu digu.

Ezkondu aurretik, lagunak edo senideen agurrik egin zioten galdetu diogunean, “niri ez, baina Nicanor lagunekin joan zen bazkaltzera eta egun-pasa”. Engraxiren kasuan horrela izan bazen ere, emakumeak ere joaten omen ziren lagunekin bazkaltzera edo afaltzera. Normalean gizonezkoek alde batetik eta emakumezkoek bestetik ospatzen zuten, “hori ez da asko aldatu”.

Orduan ez zen inor mozorrotzen, lagunekin eguna igarotzen zen edo otordu bat egin. Gaur egungo ohitura horiek berarentzat arrotzak direla esan digu, ez dituela guztiz ulertzen “moda berriak”

Egungo ohiturak

60ko hamarkadan Engraxi Zugastiri egin ez zioten bezala, gaur egun, *paintball*, *tuppersex*, sokamuturra, jokoak, upategi bat ezagutzea, bainuetxe batean erlaxatzea... Amaierarik gabeko zerrenda osatuko genuke ezkongabeen agurretan egin daitezkeen planak zerrendatu beharko bagenu.

Boat Trip San Sebastian enpresa aipatu ditugun moduko agurrak prestatzen aritzen da. Beraien berezitasuna:



Ikerrek esan digu urrutitik ere jende asko etortzen dela beraiek eskaintzen dutenaz gozatzera.

itsasontzi-zerbitzua dela, hau da, itsasontzian egiten dituztela despedidak. Negozioa duela bost urte jarri zuten martxan, eta, orduetik, talde askok kontratatzen dituzte itsasontziko zerbitzuak. “Ezkondu behar duena askotan olagarroz edo arrainez janzten dute, itsasontziarekin lotura duelako”, azaldu digu Iker Goikoetxeak, Boat Trip San Sebastianeko kudeatzaileak. “Ezkondu behar duenaren kideak ere askotan kamiseta bera jantzita etortzen dira”.

Logroñon, horrelako festak debekatu egingo zituztela esan zuten, jende asko joaten zelako eta festa horiek hiriko lasaitasuna oztopatzen zutelako. Goikoetxearen ustez, Donostian ez da horretarako beharrik: “Kalean ez dago horrelako iskanbilarik eta guk ere ez dugu eztabaida larrikeria izan gure itsasontzietan antolatutako jaietan”.

Osatu beheko hitz-gurutzatuak gaiari lotuta testuan agertu diren zenbait hitz erabiliz:

HORIZONTZALAK

1. Elkarrekin ezkondu dauden gizon eta emakumea
5. Ezkondu ez dena
6. Norbaiti ezkontzeko hitza eman dion emakumea
7. Bi lagunez osatutako taldea

BERTIKALAK

2. Bi pertsona batzen dituen zeremonia
3. Ezkondu aurretik egiten den ospakizuna
4. Norbaiti ezkontzeko hitza eman dion gizona



1	2		3											



4- Antola dezagun

Orain zure txanda da. Jarri hiruzpalau pertsonako taldeetan eta antolatu zuetakoren baten agur-festa. Horretarako, jarraitu gidoiari:



GIDOIA

- Esan zuen taldetik nor izango den senargaia edo emaztegaia.
- Zer egingo duzue? Nora joango zarete eta zein izango da eguneko/egunetako plangintza?
- Zertaz mozorrotuko zarete? Kamisetak egingo dituzue? Leloren bat izango duzue?
- Zein da gutxi gorabeherako aurrekontua?

Senargai edo emaztegai izateko hautatu duzuenak, talde handian kontatuko du nolakoa izango den taldetxoak antolatu dion agur-festa.

ERANTZUNAK

2- Profesionalen esku utzi

	ZUZENA	OKERRA
Itsasontzian egin daitezkeen ekintzak sarean begiratu, eta horien artean aukeratu behar izaten dute antolatzaileek.		X
Gehienetan gizonezkoen eta emakumezkoen taldeak izaten dira, guztiak nahastuta.		X
Guztiei gehienbat abestea eta dantzatzea gustatzen zaie.	X	
Itsasontzian abesti asko dituzte eta horiek jartzen dituzte; jendearen arabera aukeratzeko zein musika estilo jarri.		X
Eguraldiak garrantzia handia du, eta horren arabera gauza bat edo bestea egin erabakitzen dute.	X	
Leku askotako jendea joaten da: txinatarrak, nafarrak, estatubatuarak...	X	
Gehiena harritu duen taldea leku askotatik eta urrutitik etorritako pertsonen osatutakoa izan da.	X	

3- Aspaldiko ohitura

HORIZONTZALAK

1. senar-emazte
5. ezkongabe
6. emaztegai
7. bikote

BERTIKALAK

2. ezkontza
3. agur-festa
4. senargai